


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPPAren eta UPV/EHUren ARTEKO TUTOREKIDETZA  
ERREGIMENEAN DOKTOREGO TESIAK EGITEKO  
PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILEAK  
KONTRATATZEKO DEIALDIA**

**2018**

## ATARIKOA

Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatearen eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan, deialdi publiko bat jarri da abian doktorego aurreko kontratuak egin daitezen, doktorego tesiak tutorekidetzaren erregimenean egiteko.

Finantzaketa UPV/EHUren Ikerketaren arloko errektoreordetzak jarriko du 240.000 euroekin, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako kontratu programaren barruan esleitutako finantzaketarako ezarritako aurrekontu kredituari dagozkionak, "Banakako gaitasun zientifiko, teknologiko, sozial eta gestiorakoak garatzea" deritzon helburua lortzeko "Doktorego aurreko laguntzak indartzea (ohikoa eta COFUND) eta doktoreak ingurune sozioekonomikoan txerta daitezen sustatzea" 3.1. ekintzari eskainita.

Konprometitutako finantzaketaz ordainduko dira lehenago burututako deialdien bidez emandako laguntzei legozkiekeen urteko ordainketak eta doktorego aurreko kontratu berrien lehenengo urteko ordainketak.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

### 1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

UPV/EHUren eta UPPAren artean tutorekidetzaren erregimenean doktorego tesiak egiteko doktorego aurreko hiru kontratu finantzatzea da UPV/EHUren aldetik deialdi honen helburua, unibertsitate bien artean adostutako akordioan jaso den helburuari dagokionean.

UPV/EHUko arau akademikoak aplikatuz, unibertsitate biek tutorekidetza hitzarmen bat sinatuko dute finantzatuko den tesi bakoitzerako, eta hor zehaztuko dira tesiaren xehetasun akademikoak.

Deialdi hau irekita dago jakintza zientifikoaren arlo guztietarako.

### 2. oinarria. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

2.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskaria aurkezten denean**:

- a. Titulazioari dagozkion betebeharrak hauekiko bat bete behar da:
  - i. **Doktoregora sartzeko bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, 2015eko urtarrilaren 1etik** aitzina lortuta. Salbuespenez, titulazioa lehenagoko data batean lortu izana izan ahalko da, proposatutako ikerketa proiektuaren gaiari loturiko lan ibilbidea edo ikerketa jarduna egiaztatzen bada. IGBBk balioetsiko ditu baldintzok baldintza hau bete den edo ez ebazteko.
  - ii. **Doktoregora bide ematen duen unibertsitate tituluaren jabe izan, berori 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, egun hori ere barne**, lortua izanik eta egiaztatu 2012ko urtarrilaren 1aren eta 2014ko abenduaren 31aren artean, biak barne, hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izana.
  - iii. Unibertsitate tituludunen kasuan, osasun prestakuntza espezializaturako plazak lortzera bideratutako prestakuntza plaza lortua badute, osasun zientzien espezialitateetako titulu ofiziala lortzera bideratutako prestakuntza programa batean, gutxien dela, bi urte balorazio positiboaz gainditu badute eta bi prestakuntza urte horien amaiera **2015eko urtarrilaren 1etik aitzina** bada.
  - iv. **Doktoregora sarbidea ematen duen titulu baten azken ikastaroan aritzea**. Pertsona hauek epe gehigarri bat izango dute **2018ko urriaren 31ra arte, egun hori barne**, espediente akademiko osoa aurkeztuko badute. Espedientea deialdi honen 6. oinarrian deskribatutako edozein bitarteko erabilita aurkeztuko ahal da. Aurkeztu ezean, hautagaiok hautaketa prozesutik at geratuko dira.

Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 errege dekretuak 6. artikuluan zehazten ditu doktorego programak bete behar dituen baldintzak, hots:

1. Oro har, doktorego programa ofizial batera sartu ahal izateko, graduako edo pareko ikasketen titulu ofizialaren eta unibertsitate master edo pareko titulu ofizialaren jabe izan behar da, betiere, bi ikasketa horietan, guztira, gutxienez 300 ECTS gaindituta badituzu.
2. Programan sar daitezke, era berean, kasu hauetako batean daudenak:
  - a) Espainiako unibertsitate titulu ofizial baten jabe izatea, edo Europako Goi Hezkuntzaren Eremuko beste herri batekoa, baldin eta, urriaren 29ko 1393/2007 EDko 16. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira, masterrean parte hartzeko gaitzen badu. Eta gaindituak izatea, gutxienez, 300 kreditu ECTS, unibertsitate titulu ofizial guztiak kontuan hartuta, eta horietatik 60, gutxienez, master mailakoak izango dira.
  - b) Espainiako gradudun titulu ofizial bat izatea, eta haren iraupena, zuzenbide komunitarioko arauak betez, 300 kreditu ECTSkoa izatea, gutxienez.

Konputuari dagokienez, aintzat hartuko da doktoregorako sarbidea ematen duen lehenengo titulazioa noiz lortu den.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz. Plan ez berrituen kasuan, batez besteko nota kalkulatzeko lortutako kalifikazioen batura zatituko da gainditutako irakasgaien kopuru osoarengatik.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatzeko, balioetsi edo egokitu ez dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliokidetu edo egokitutako irakasgaien kasuan, jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, baldin eta dokumentalki egiaztatu ahal bada. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, nahiko kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Era berean, espedientearen batez besteko kalkuluari dagokionean, ez dira aintzat hartuko beste espezialitateetako irakasgaietan lortutako notak, ez eta masterreko ikasketetan ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, ANECA Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziaren ziurtagiri ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat.

2.1c. Doktore titularen jabe ez izatea.

2.2. Eskatzaileek baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte **kontratua sinatzerakoan**:

- a. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek **Espainian lan egiteko administrazio baimena** aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.
- b. **Matrikulatuta egon eskarian adierazitako UPV/EHUko doktorego programan, Master eta Doktorego Eskolak ezarritako epeen barruan, eskaeran adierazitako tesi zuzendari kideekin batera, emateko ebazpena behin betikoa argitaratzerakoan.** Honela egiaztatu ezean, laguntza ezesteko arrazoi izan daiteke. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, horretarako epean eta forman.
- c. **Eskarian adierazitako UPPAren doktorego programan matrikulatuta eta eskarian adierazitako tesi zuzendarikideekin egotea, laguntza emateko erabaki behin betikoa argitaratzerakoan eta honela ez egiaztatzea laguntza ukatzeko zio izango da.** Honela egiaztatu ezean, laguntza ezesteko arrazoi izan daiteke. Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaria egitea, horretarako epean eta forman.

### 3. oinarria. TESI ZUZENDARI KIDEEN BALDINTZAK

3.1. Eskariek nahitaez izango dute UPV/EHUko zuzendari kide bat eta beste zuzendari-kideak UPPAkoa beharko du izan.

3.2. Tesi zuzendari kideek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte **eskaria egiten denean**.

a. ***UPV/EHuren doktorego programan egon beharra du, eskarian adierazitako urtarilaren 28ko 99/2011 errege dekretuak araututa. Tramiteak graduondoko batzordeak eginga beharko du izan eskaria aurkezterakoan.*** Eskatzaileek egiaztatu ahal izango dute proposatutako zuzendari-kideak beraiek hautatutako doktorego programan ari diren honako esteka honetan:

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza>

b. ***UPV/EHurekiko lotura funtzionarial zein lan lotura, eskaria agertzeko unetik eta laguntza gauzatzeko tarte edo epe osoan zehar.***

c. ***Tesi zuzendariak ezin emango dio abala eman deialdi honetan eskari bati baino gehiagori.***

3.3. UPPAko tesi zuzendari kidea onartuko beharko du UPV/EHuren barruan legokiokeen batzordeak. Tramite honi laguntza ematerakoan ekin ahal izango zaio.

### 4. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

Honako deialdi hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren legearen (LCTI) aplikazioaren eremuan kokatzen da, kontratuaren modalitatea deialdi honen 21. artikuluan araututa.

4.1. Kontratuaren xedea ikerketa lanak egitea izango da, proiektu espezifiko eta berritzaile baten eremuan. Kontratututako langileak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzailezat hartzen dira.

4.2. Kontratua idatziz formalizatuko da prestakuntza bidean den doktorego aurreko ikertzailearen, langile bezala, eta UPV/EHuren artean, enplegatzaile gisa.

4.3. Kontratututakoa, beraz, UPV/EHuren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

4.4. Kontratua arduraldi osokoa izango da eta urtebetetik gora iraunen du. Era berean, kontratua ezin joan daiteke lau urtetatik gora. Luzapena urtero egingo da eta, horretarako, langilea matrikulatuta egongo da doktorego programa bietan.

Kontratua % 33ren minusbaliotasuna edo goragoko pertsona batekin sinatu bada, balioetsiko da kontratua gehiago luzatzeko aukera, kontratatutako pertsona doktoregoko prestakuntzarako eperik luzeena arduraldi osoan agortu arte.

Kasu guztietan oro, kontratuaren aurrerantzeko luzapenak aurrekontu erabilgarria edukitzearen menpe egongo dira.

Kontratua luzatuko bada, ezinbesteko baldintza izango da eskarian adierazitako doktorego programetan matrikula egitea. Ez da programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.

4.5. UPV/EHUK ezin izango du inor kontratatu mota honetako kontratuen bidez lau urtetatik gora, beti ere zenbatuta beste erakunderen batean kontratu modalitate honen bidez izandako aldia, salbu eta 4.4 oinarriaren 2. paragrafoan aurreikusitakoa.

4.6. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

4.7. Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza erabakian ezarritako epean amaituko da. Laguntzaren etenaldian zehar baja emango da gizarte segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da eta kontratuaren behin betiko amaiera eragin lezake.

4.8. Formalizatutako kontratu etako ordainsari gordina 14.691 eurotako ia izango da lehenengo urtean, 14.691 eurotako bigarrenetan, 18.364 eurotako hirugarrenetan eta 18.364 eurotako laugarrenetan, hamalau ordainketatan banatuta.

4.9. Deialdi honen bidez hautatutako pertsonak ez dute UPV/EHUrekiko kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hau bukatuko da kontratuaren iraupena bukatzen denean edo 17. Oinarrian zerrendatzen diren arrazoi etako bat ematen denean.

## 5. oinarria. ESKARIEN EDUKIA

5.1. Eskariak IA Eren webgunetan eskura daitezkeen eredu arautuetan bete behar dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-doktoratu-aurreko-laguntzak>

Eskaria egiteko inprimakia **paperezko euskarrian** eta PDF gisa aurkeztu beharko da, eskuz idatzitako jatorrizko sinadurekin edo ziurtagiri elektronikoa bidez sinadura digitalekin. Eskaria egiteko formularioa **eskariaren zati eta ataltzat hartuko da, eskariaren gutxi eneko edukia izanik**. Epearen barruan eta formaz aurkeztu ezean, bazterrean utzi ahal izango da eskaria, zuzentzeko epean gehitu edo aldatu ahal izateko aukerarik gabe.

5.2. Era berean, honako dokumentu hauek ere gehitu beharko dira CD, DVD edo pendrive batean **PDF formatuan**:

- a. ***NAN, atzerritarren identifikazio zenbaki edo pasaportearen fotokopia.***
- b. ***Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazio etako akademi ziurtagiri pertsonala, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiak osatzen dutela titulazio osoa. Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHU n egin dituzten eskatzaileek ez dute dokumentu hau agertu beharrik.***
- c. 2.1.a.ii edo iii. oinarrietako adierazitako salbuespen etako bat alegatuko luketen eskatzaileek, aurrekoaz gain eta norberaren kasua zein den, ***espezialitateko tituluaren kopia edo beronen ziurtagiri ofiziala*** agertu beharko dute edo hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izanarena (***familia liburuaren fotokopia***). Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera atzerrian egindako unibertsitate titulazioen ***batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria*** aurkeztu beharko da, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatu ko Agentziak (***ANECA***) emana. Dokumentu hau ANECAren webgunetaren bidez lortu ahal da:  
<http://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha.html>
- d. ***Eskatzaileen Curriculum Vitae.*** Dokumentu hau ingelesez aurkeztu ahal izango da Ekonomia, Industria eta Lehiakortasunaren ministerioaren ohiko formatuan. Txantiloia IA E-ren webgunetik jaitsi ahal da.
- e. Ezgaitasunik duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartuko diren pertsonak ziurtagiria aurkeztu beharko dute % 33ko ezgaitasuna edo handiagoa egiaztatzeko.
- f. ***Europar Batasuneko hiritarrik ez diren eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute, eskaria ebatzi eta, beranduen, hiru hilabetetara, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 lege organikoan ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 lege organikoak emandako idazketan.***
- g. ***Nazionalitate frantsesa duten eskatzaileen gaztelaniaren edo euskararen jakite mailaren ziurtagiria edo nazionalitate espainiarra duten eskatzaileen frantsesaren jakite mailarena (B1 edo C2 bitartekoak besterik ez).*** Eskariak aurkezteko edo, hala balebegio, okerrak zuzentzeko prozesuko azken egunera arte lortutako ziurtagiriak besterik ez da onartuko.

**Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da ebaluatuko. Hortaz, ez da eskatutakoaz besteko dokumentazioa aurkeztuko, ez baita inola ere aintzat hartuko.**

5.3. Eskatzaileek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dute eskaria, CV izan ezik, berorrek ingelesez egon beharko baitu ezinbestean.

Eskariak kanpoko prozesu baten bidez balioetsiko da Ikerkuntzarako Estatu Agentzia, Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatala (lehenago ANEP) baliatuz, euskaraz ez dakien pertsonalak egina. IAE-k UPV/EHUn Euskara Zerbitzuari aginduko dio euskaraz aurkeztutako eskariak gaztelaniara edo ingelesera itzultzea. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoz helaraziko zaio eskatzaileari, eskariak adierazitako helbide elektronikoen bidez.

Eskatzaileak bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

5.1. Eskaerak behar bezala aurkeztutzat joko da baldin eta eskaria bera paperean nola dokumentazioa PDF formatuan UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUn 2012ko maiatzaren 16ko erabakian (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa) aipatzen diren bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikulua araberak ere aurkez daitezke.

Halaber, aipatutako 39/2015 legeak ezarri bezala, eskarik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigilatuko badu. Ondoren, posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Ikerketako Deialdien Atala  
Errektoregoaren eraikina  
Sarriena auzoa, z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

Posta bulegoetan aurkeztutako eskarietan, argi jaso beharko da bulegoaren izena eta zer datatan eta tokitan aurkeztu zen. Honez gain, interesatuak posta elektronikoen bidez egun berean jakinarazi beharko dio IGZri eskaria igorri dela.

Fase honetan, **inprimakia osorik beteta ez aurkeztea, sinadura originalak barne direla, arrazoia izango da hautaketa prozesutik at uzteko.**

## 7. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko uztailaren 4a artekoa izango da.

## 8. oinarria. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe)(a)(b)	50 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa egokia barne	30 puntu
3. Eskatzailearen esperientzia eta curriculum.	10 puntu
4. Frantses maila nazionalitate espainiarra duten eskatzaileei edo euskara edo gaztelaniaren maila nazionalitate frantsesa duten eskatzaileei (c)	10 puntu
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>

(a) **oharra:** Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHUn, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

**NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:**

**Eskatzailearen\_NK:** eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

**Eskatzailearen\_BatezBestekoa:** Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

**Titulazioaren\_BatezBestekoa:** Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batezbestekoa.

**Gutx\_NK:** Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

**Geh\_NK:** Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

**Titulazioko\_DesbEstand:** Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako noten desbideratze estandarra.

**Eskatzailearen\_NotaNormalizatua:** 8.1, 8.2 eta 8.3 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

**NK\_eskatzailea =**

$$\frac{(\text{Eskatzailearen\_NK} \times 10) - (\text{Titulazioaren\_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko\_DesbEstand}}$$

**Eskatzailearen\_NotaNormalizatua =**

$$50 \times \frac{(\text{Eskatzailearen\_NK}) - (\text{Gutx\_NK})}{(\text{Geh\_NK}) - (\text{Gutx\_NK})}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, 2.1.a oinarrian ezarritako denbora baldintza betetzen duena edo proposatzen den ikerketa proiektuaren gaiarekin erlaziorik estuena duena erabiliko da normalizaziorako.

**(b) oharra:** Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAn igorritako egiaztagiria deialdiaren 5. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira

**(c) oharra:** Adierazitako puntuazioa lortzeko, legokiokeen maila egiaztatuz aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 10 puntu.
- B1 egiaztagiria eta baliokideak: 8 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B1 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiatagiriari dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

## **9. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA**

### **Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda:**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak. Azterketa hau amaitu eta gero, IAE-k bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskarien zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak. Tramite hau egiteko, hilabetearen epea izango du, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

### **Okerren zuzenketa:**

Eskariak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, IAE-k eskatuko dio eskatzaileari hamar egunen epean osatu eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskariak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAE-k eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerrak zuzendu beharko dira 6. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

### **Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda:**

Agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Behin betiko zerrenda hamar lanegunen epean argitaratuko da okertzeko epea amaitu eta gero kontaktzen hasita.

### **Ebaluazio fasea**

Ebaluazioa Ikerkuntzarako Estatu Agentzia (lehengo ANEP), Ebaluazio eta koordinazioaren azpiatalaren bidez egingo da. Tramite hau bi hilabetetan luzatuko da.

Ebaluazio txostenak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerkuntzaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, espediente akademikoaren batez besteko nota haztaturik altuena lukeen eskaria lehenetsiko da (1. irizpidea).

### **Behin-behineko ebazpena**

IGBB-k behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAE-ren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskariaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute [pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus) helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

### **Behin betiko erabakia:**

Epea hau iraganik, IAE-k aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBB-ri, bertan azter daitezen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazio onartu zein ezesteko behin betiko erabakia IAEren webgunean argitaratuko da eta banakako ebazpena bidaliko zaie eskatzaileei.

### **Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak:**

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:



1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitatzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

## **10. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

10.1. Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen adjudikatarioek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin-behineko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAE-n:

- a. Lan bizitzaren ziurtagiria.
- b. Bi unibertsitateetako doktorego programetako matrikularen gordekina
- c. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendari kideek eta adskripzioari dagokion sail, institutu zein ikastegiko zuzendariak ontzat emana.
- d. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- e. Zinpeko aitortzea, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- f. Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- g. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.**

10.2. Aurreko atalean adierazitako baldintzak bete eta hurrengo hilabetean formalizatuko dira kontratuak eta kontratatutako langileak dagokien unibertsitate sail, institutu edo gunetan lanean hasiko dira.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzek ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

10.3. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerkuntzarako errektoreordeak baimena eman dezake hasteko eguna gehienez sei hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaria 10.1 oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztuko da.

10.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

10.5. Kontratua sinatu eta sei hilabetez gero, Ikerkuntza gestiorako zuzendaritzak (IGZ) ofizioski egiaztatuko du onuraduna eskarian adierazitako doktorego programetan matrikulatuta dagoela, bai eta tesiaren zuzendari kideak azkenik bertan adierazitakoa direla ere. IAE-k ofizioski eta 6 hilero maiztasunaz baldintza hau betetzen duen ikuskatuko du, kontratuak dirauen bitartean. Bi betebeharrak hauetako bat bete ezean, kontratua atzera botatzeko arrazoitzat hartuko da.

## **11. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK**

11.1. Eskubidea dute txertatzen direneko sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketa programak egiteko.

11.2. Kontratutakoek unibertsitateko ikerkuntza zerbitzu orokorrak (SGIker) eta beroriek hartuko dituen ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabili ahal izango dituzte. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

11.3. Kontratutakoak zeregin osagarriak egin ahal izango ditu proposatutako ikerketa jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan (gehienez 60 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, irakasgai ardurarik izan edo ikasleen ebaluazio edo probarik egin ezin dutelarik.

## **12. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

12.1. Eskarian adierazitako doktorego programan matrikula urtero formalizatuko dute UPV/EHUren graduondoko batzordeak ezarriko dituen epeen barruan.

12.2. Zeinek bere lana adskribatutako sailean, institutuan edo gunean egitea.

12.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZ-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

12.4. Honako deialdi honen aipamena egin beharko dute, kontratuak dirauen bitartean egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatuko liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

12.5. Organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrol-jardueretara makurtzea, jardura horietarako eska dezaketen edozein informazio emanez.

12.6. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, prestakuntzan ari den pertsonalak egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitopenari betiere eutsiz.

12.7. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

12.8. Doktoregoa lortuko dute legozkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

### **13. oinarria. TESI ZUZENDARI KIDEEN BETEBEHARRAK**

13.1. Tesi zuzendari kideen betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesi zuzendari kide gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

13.2. IAE-ri jakinaraziko diote deialdi honen bidez kontratatu den pertsonalak doktore gradua lortu duela.

13.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAE-k edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

### **14. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA**

Deialdi honen kargura finantzatutako kontratuak ez dira bateragarriak kontratatutako ikertzaileek eduki ditzaketen lan kontratuekin, edo soldata izaera duen edozein diru kopuru jasotzearekin, arduraldi osoko erregimenaren ondorioz.

### **15. oinarria. KONTRATUAREN UKOAK, BAJAK ETA AMAIERA**

Tesi zuzendariak deialdi honen bidez kontratatutako pertsonalak egin litzakeen uko, baja eta gainerako gorabeheren berri eman beharko dio UPV/EHuren IAeri, gertatu eta hiru lanegunetara, kasuan kasu justifikatzeko beharko litzatekeen agiriekin batera.

Kontratututako ikertzaileak ukoa, baja edo gorabehera jakinarazi beharko dio Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari.

### **16. oinarria. JARRAIPENA**

16.1. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, IAEk edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

16.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio IAeri.

16.3. Kontratu amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

### **17. oinarria. KONTRATUEN ETETEA**

Lan kontratua ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a. Kontratatuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskarian adierazitako doktorego programan matrikulaturiko pertsonaren izaera galtzea.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskarian adierazitakoez besteko tesi zuzendariarekin aritzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren baimenik gabe.
- e. Tesi zuzendari-kideek eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendari-kideek eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f. Laguntza ezeztatzea, eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza ematerakoan aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- g. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- h. Laguntzarako aurrekontu krediturik ez dagoelako.
- i. Doktore titulua eskuratzea. Doktore titulua lortzeak laguntzaren helburua baliogabetzea eragingo du eta, ondorioz, laguntza eskubideak bertan behera amaitzea. Honelakoetan, laguntzaren amaieraren ondorio administratibo eta ekonomikoak doktorego tesiaren defentsa egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunean hasiko dira.

### **18. OINARRIA. JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK**

18.1. Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Deklarazioetan jasotako printzipio etikoak errespetatu (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Deklarazioa, 2004).
- Indarreko arauak bete behar dira: 14/2007 Legea, biomedikuntzako ikerketei buruzkoa; 1716/2009 EDa, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Datu Pertsonalei buruzko 15/199 Lege; eta UPV/EHUko arautegia, datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 2008koa.
- IIET/GIEB-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aldeko txostena lortu, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

18.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

18.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuzentasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 664/1997 ED; agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik langileak babesteari buruzko 665/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED).
- Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoeekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, alde zuzenik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

18.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (2011ko abenduaren 2ko EBO, 290. zk.)

18.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikularekin bat etorrita.

#### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2018ko ekainaren 7an

José Luis Martín González  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación